



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhua Mindeguia Ochandorena
Txomin Hualde Elizalde
Pedro Hilario Santesteban Loyarte

2025eko otsailaren 17an, 08:00tan, ez-ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1.- HERRIKO OSTATUAREN ESLEIPENA.

Zubietako Udalak, 2025eko urtarrilaren 9ko Osoko Bilkuran, erabaki zuen deia egitea *Herriko Ostatuan* taberna, hostel eta jatetxe zerbitzuaren errentamendua emateko leihaketa irekira.

2025eko otsailaren 10ean, proposamenak aurkezteko epea bukatu zen eta otsailaren 12an kontratazio mahaia bildu zen lau eskaintzak irekitzeko.

Idazkariak kontratazio mahaiaaren akta irakurri du eta, pliegoen irizpideak jarraituz, esleipena Mirian Dina Sanles Gestido andrearen alde izatea proposatzen du.

Horrenbestez, Udalbatzak aho batez **hurrengoa erabaki du:**

1. *Herriko Ostatuan* taberna, hostel eta jatetxe zerbitzuaren errentamendu kontratua esleitzea Mirian Dina Sanles Gestido andreari, 400 eurotan gehi BEZa hilabetero.

2. Baldintza pleguko 8. eta 9. baldintzak bete beharko dituzte adjudikatariek epe-barra (behin betiko fidantza ezarri, kontratua gauzatu eta horretarako behar diren agiriak aurkeztu).

3. 2025eko martxoaren 1ean hasteko kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

4.- Akordioa interesatuei jakinaraztea”

Eta bertzerik ezean, 08:15ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

